

ERRONKA bat PARKE arentzat

EKIMENAREN OINARRIAK



Baduzu Parkea HOBETZEKO IDEIAREN bat?

Euskadiko Parke Teknologikoak (EPT) berrikuntzako ekimen ireki honen edizio berri bat abiaraziko du, Parkea eta honetan instalatutako enpresak hobetzeko lagungarri diren ideiak identifikatzeko.

ERRONKAREN ESPARRUA

Parkeari etorkizuneko 2025-2028 Plan Estrategikoa garatzeko aukera emango dioten ideiak, erronka berriekin bat etorriz.

[2021-2024ko Plan Estrategikoa deskargatu](#)

- **Parke Teknologikoko komunitatean eragina:**
 - Langileen bizi-kalitatea hobetzea.
 - Parkeko enpresen arteko lankidetzaren sustatzea.
- **Azpiegiturak eta zerbitzuak optimizatu:**
 - Lanerako eremuak edo eremu komunak (barnekoak eta/edo kanpokoak, urbanizazioa) hobetu.
 - Energia-eraginkortasunarekin eta azpiegituren kudeaketarekin lotutako proposamenak.
 - Dauden zerbitzuak hobetzeko eta zerbitzu berriak ezartzeko proposamenak.
- **Prozesu eta teknologien berrikuntza:**
 - Instalaturako enpresei mesede egingo dieten teknologia berriak sartzea.
 - Parke barruko kudeaketarako edo komunikaziorako soluzio digitalak.
- **Jasangarritasuna eta ingurumena:**
 - Campusetan jasangarritasuna hobetzeko proiektuak (energia berriztagarriak, kontsumoak, erresilientzia, klima-aldaketa, ekonomia zirkularra, emisioak...)
 - Campusaren barruko mugikortasun jasangarriarekin lotutako proposamenak.
- **Negozio-garapena eta lehiakortasuna:**
 - Parkeko beste enpresa batzuekin edo inguruko enpresekin negozio-aukera berriak sortzen dituzten ideiak.

HARTZAILEAK

Ekimen honen hartzaileak Euskadiko Parke Teknologikoan lekutatuko **enpresetan lan egiten duten pertsonak** dira, Parkea hobetzeko helburuak dituzten ideiak proposatu nahi dituztenak.

SARIAK

Deialdi honetan proposatutako erronka guztien artean **ERRONKA BAT** sarituko da.

Parte hartzen duten pertsona eta enpresen parte-hartzea sarituko da:

PERTSONA: Edizio honetako irabazleak **600 euroko bidaia-poltsa bat** jasoko du.

ENPRESA: Irabazlearen enpresak **doako erabilera bat** jasoko du jardunaldi batean, Zamudio/Derioko, Gasteizko edo Donostiako campusetako eraikin zentraletako batean kokatutako **sormen-aretoetako** batean.



Eman forma ideari Parkeak zure ERRONKA ezarri beharko lukeela guri konbentzitzeko

PARTE HARTZEKO MODUA

Parte hartu nahi duten pertsonak IDEIA mugaegunaren aurretik aurkeztu beharko dute, web inprimaki bidez. Pertsona bakoitzak nahi beste IDEIA aurkez ditzake. Haatik, horietako bakoitzerako inprimaki bat erabili beharko dute.

Proposamenetan alderdi hauek aipatu beharko dira erreferentzia gisa:

- Aurkeztutako proposamenaren zehaztasuna eta garapena:
 - Proposamenaren irismena.
 - Inplementaziorako faseen plangintza.
 - Martxan jartzeko behar diren baliabideak kalkulatzeko.
- Egingarritasun ekonomikoa, teknikoa eta baliabideena, EPTan implementatu ahal izateko.

- Garrantzia eta eragina EPTaren estrategian, bere enpresa eta pertsonengan.
- GJHekiko eta RIS3arekiko harremana eta konpromisoa.
- Proposamenaren kalitatea: Zehaztasuna eta zorrotasuna idazketan eta aurkeztutako informazioan, kontsultatutako kontraste-informazioa, ereduaren edo prototipoen aurkezpena, originaltasuna...



BIDALI IEZAGUZU zure proposamena

Ideiak horretarako prestatutako web inprimaki bidez aurkeztuko dira:

[IDEIAREN FORMULARIOA](#)

Jasotzeko epea **2025eko urtarrilaren 31an** itxiko da.

Epe horretatik kanpo bidaltzen den proposamen oro ez da onartuko.

BALDINTZA OROKORRAK

- Ekimen honetara aurkezteak pertsona parte-hartzaileek eta horien enpresek oinarri hauek ezagutu eta onartzen dituztela aurresuposatzen du, eta baita aurreikusi gabeko gorabeheren ondorioz hartzen den edozein ebazpen ere.
- Parte-hartzaileek helarazitako dokumentazio orok izaera konfidentziala izango du. Dena den, Euskadiko Teknologia Parkeak, aurkeztutako proposamenen ezaugarri nagusiak eta horien sustatzaileen izenak (pertsona eta enpresa) hedatu ahal izango ditu.

- Aurkeztutako proposamenen egile diren pertsonak EPTari lagatzen dizkiote berriaz obra ustiatzeko eskubideak, inolako mugarik gabe, ustiapen-modalitate guztiak barne.
- Datu pertsonalen tratamenduei eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 Erregelamenduko (EB), (aurrerantzean DBEO), 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, EPTak datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio hau helarazten du:

Arduraduna: EPT, zeinen harremanetarako datuak hemen aurki daitezke: www.parke.eus

Datuak tratatzeko helburua, EPTaren jarduerari eta zerbitzuei buruzko komunikazioak, buletinak eta mailingak bidaltzea da.

Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, aurkaratu eta eramateko eskubideak erabiltzeko rgpd@parke.eus helbidera idatz dezakezu

Mesedez, bisitatu EPTaren webguneko pribatutasun-politika (<https://parke.eus/es/privacidad/>), EPTak zure datuak tratatzen dituen baldintzen eta zure eskubideen berri izateko.